



Gipuzkoa Talenten lehenengo jarduera soziokulturala bisita gidatua eta pintxo-dastaketa izan ziren, Donostian

Nazioarteko hogeit hamar profesional inguruk Gipuzkoa Talenten ekitaldi soziokulturala inauguratu zuten

Iraila 2018. Joan den irailaren 22an, goi-mailako prestakuntzadun nazioarteko hogeit hamar profesionalak Gipuzkoa Talentek antolaturiko jarduera soziokulturalean parte hartu zuten, xedea izanik harreman profesionalak zein pertsonen artekoak sustatzea eta nazioarteko profesionalak gizarteratzen laguntzea.

Parte-hartzaileak hainbat herrialdeetatik etorriak ziren, hala nola Brasil, Erresuma Batua, Italia, Frantzia, Mexiko, Holanda eta Errusiatik, bai eta Estatutik ere, Albacetetik, kasurako, eta beren lan-jarduera garatzen dute, besteak beste, BCBL, CAF, Nem Solutions, Polymat eta Pernod-Ricard enpresetan.

Goizean, historialari batek lagunduta, bisita gidatua egin zuten hiriko alde zaharrean zehar, aurrena, eta gertuko barrutietan barrena, ondoren. Bisita San Telmo Museoan amaitu zen, eta gero pintxoak dastatu zituzten Donostiako Alde Zaharrean.